

“Madrilen Paco Martínez Soria bezala sentitzen naiz”

Gurutze Beitia | “Guru”

Txiste onak grazia guztia galtzen du
esplikatzuz gero,
baina txiste kontalariak?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona



Sortzez denak gara euskaldunak?

Bilbainoa ezin daiteke edonor izan, baina gastronomikoki denak sortzen gara euskaldun. Konturatu zara maitasunetik hiletetara dena egiten dugula mahai bueltan?

Txisteak kontatzen egin zinela ezagun ohartu naiz ni. Ez da oso glamurosoa aktore batentzat...

Ez dago hau ulertuko duenik! Orain “hara, *Vaya Semanita!*-koa!” edo “oso ahots polita daukazu, animo Almudena!” bezalakoak esaten dizkirate. Ez zaizu glamurosoa iruditzen besteen loreak jasotzea?

Telebistan sasia baizik ez dagoela iruditzen zait niri...

Bagara bil! Ez dut ulertzen egungo telebistak nola dibertitu dezakeen jendea. Mass-medien munduak Erroma klasikora bueltan ekarri gaitu. Ogia eta zirkoa ematen dizkigute eta gu pozik.

Eta zer da *Aspaldiko* zuretzat, ogia ala zirkoa?

Pertsonaiarik gabe agertzen naizen toki bakarrenetakoa. Ez esan zu ere gobernu zahar eta berriarekin programan agertu naizelako gauza arraroak pentsatzen hasi zarenik! Saiatzen naiz gaiak umorez lantzen, baina zaina puzten didatenean...

Madrilen lan egiteak zaina ala egoa puzten dizu?

Sekulako kultur eskaintza daukate, baina ez dago itsasorik, sudurra odoletan hasten

zait... Madrilen Paco Martínez Soria bezala sentitzen naiz!

Zure buruari barre egiten diozun bitartean...

Zergatik ez diot egingo nire buruari barre kiloak soberan badituz? Albistegiek zainak mozteko gogoia ematen didate eta umorerik ez banu medikatu beharko nuke. Horregatik, egunero behar dut nire umore dosia.

Umoreaz galdetu eta kiloak erantzun... Ez zara zu ere itxuraren matrakarekin hasiko, ezta?

Irudiarekin eta adinarekin obsesionatuta gaude eta ematen du kiloak eta zimurrak bekatuak direla. Ez dut ulertzen aktore batek aurpegian *botox*-a injektatzea. Zer transmititu behar du aurpegirik mugitu ezin duen aktoreak?

Azaleko profesionaltasuna, agian?

Asko kosta zaigu jendeari begirako ofizioa sinesgarri bihurtzea. Egun, jendeak lanbide serioztat dauka gurea, baina tamalez, beste gauza bat da aktoreak jende serioztat izatea.

Badakizu, zinea, antzerkia, publizitatea, telebista, irratia, txiste kontaketa, eta monologoak ginez gero...

Nik antzerkiko piztiatzat daukat nire burua, baina bizi nahi baduzu... Lanbide hau horrelakoa da eta horrelaxe maitatu behar duzu. Ez naiz Bardem, ez naiz Verdú, Beitia naiz, baina nik ere interpretatzen hil nahi nuke. Zuk ikusi, hori bedeinkapena ala kondena den. ■